

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Heldu... inoiz ez.
PAM.
Autoekoizpena.
Iraupena: 33'24".
9,50 euro.

Bidea egiten disfrutatzen dakiten maisuak

ERMUTIK DATOR matematiketan bezala musikan eta horren inguruko batailatan eskarmentu handia daukan laukotea: Putoamoak Matematiketan dira. Julio Kageta, The Pepes, Dantzut, Kubanahana eta beste talde askotan ibili ostean, 1999an zenbaki artean aritzea erabaki zuten, nahiz eta ez dakidan zer zenbaki egin zituzten. Poliki lan egiten dute, euren erritmora, eta musika izugarri maite dutelako daude oraindik hemen. Ez horrega-

tik bakarrik, egiten dutena ondo eta bihoztez egiten dutelako ere bai. Honako hau beraien laugarren diskoa da, rock indartsua melodia itsaskorrekin ederto ezkonitzen duena, oreka egokian. Ez hori bakarrik, gai dira rapeatuak uztartzeko, post-hardcore erritmo eta giroak batzeko, 90eko hamarkadako euskal talde batzuk gogorarazteko edota QOTSA aldarrikatzeko, besteak beste. Euren apaltasunean lan ederra egin dute.

Markos - PAM

«20 urte daramatzagu eta arrakastarik izan ez arren, konposatzen jarraitzeko ilusioa daukagu»

Askotan esaten da musika ez dela matematika, ezin dela neurtu... Zer eman dizue musikak?

Egiten duguna musika da. Matematikarekin guztia azaldu daiteke, baina nahiago dugu guztia esplikatu ez egotea. Musikan 20 bat urte daramatzagu eta arrakasta handirik izan ez arren, konposatzen jarraitzeko eta bide berriak bilatzeko ilusioa daukagu oraindik. Musika gure bizitzako zati garrantzitsua da. Bitxia da kanturik kantu abesteko erregistroak asko aldatu izana...

Bai, hirurok abesten dugu tarteka; are gehiago, guztiok egiten ditugu musika eta hitzak. Kantuaren, estiloaren eta tonuaren arabera banatzen ditugu.

Euskara zikiña. Euskarak ez du gauza guztietarako balio?

Irati Jimenezek *Berrian* idatzitako zutabe batetik hartu dugu. Euskara garbia eta zuzenaren aurrean, beste-

lako euskara ere aldarrikatzen dugu: hau da, euskara komunikazioaren esparru guztietan baliagarria izan dadila. PAM taldean beti abestu dugu euskaraz, eta iraganean izan ditugun talde gehienetan ere.


asko dagoen arren, garrantzia ematen diogu sentitzeari eta gauzak gure kabuz egiteari.

"Sormenari klausura egoki dator-kio". Hala pasa dituzue bi urte diskoa egiten?

Ez. Zoritzarrez ditugun lanek asko mugatzen gaituzte, eta astean behin bakarrik elkartu ahal izaten gara. Diziiplina hori ezartzea erabaki genuen, eta bai, disko hau mimatu egin dugu konposizioan eta soinuan.

Gaur egun oso ohikoa bada ere, PAM taldeak beti aukeratu du autoekoizpena...

Hala da. Aurretik izan genituen taldeetan konturatu ginen prozesu guztia guk egin dezagula. Lokalean bertan grabatzen dugu, fabrikara guk bidaltzen dugu... Zailtasun bakarra edo handiena banaketa da; horregatik hor akordioak egiten ditugu beste batzuekin. ■



Erantzun guztiak dira abestiak...

Musika asko gustatzen zaigu, musika egiteko grinari eusten diogu; eta rockaren munduan itxurakeria